

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2022ko otsailaren 12tik 18rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2022/02/15

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** EBAZPENA, 2021eko abenduaren 21ekoa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez erregistratu, argitaratu eta gordailutzen baita Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko zuzeneko kudeaketako eskola-jantokietako kolektibitate-enpresen hitzarmen kolektiboaren jarraipen eta bermerako Batzorde Paritarioak hartutako erabakia, 2022rako soldata-taulak onartzeari buruzkoa (hitzarmen-kodearen zenbakia: 86002235012003). **763 xedapena - 3 or.**

2022/02/17

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** EBAZPENA, 2021eko abenduaren 15ekoa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, «Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Ikastolen Lan Hitzarmena. 2020-2021» erregistratu, gordailutu eta argitaratzen duena. **824 xedapena - 61 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2022/02/14

- **EUSKO JAURLARITZA. LANA ETA ENPLEGUA.** 2020-2021-2022 urteetarako Gipuzkoako industria siderometalurgikorako hitzarmen kolektiboaren 2022rako soldata-berrikuspenerako akordioa (2022-01-27). **568 xedapena - 8 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/02/12

- **OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. Toki korporazioak. Zerga informazioa.** Ebazpena, 2022ko otsailaren 8koa, Autonomia eta Toki Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez garatzen den toki

korporazioek eman beharreko informazioa 2020ko zerga esfortzuari buruz eta horren egiaztapena Ekonomia eta Ogasun Ordezkaritzetan. **2224 xedapena - 4 or.**

2022/02/15

- **OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. Antolamendua.** Akats-zuzenketa, honako errege dekretu honena: 682/2021 Errege Dekretua, abuztuaren 3koa, zeinaren bidez garatzen den Ogasunaren eta Funtzio Publikoaren Ministerioaren oinarrizko egitura organikoa, eta aldatzen den ministerio departamentuen oinarrizko egitura organikoa ezartzen duen urtarrilaren 28ko 139/2020 Errege Dekretua. **2327 xedapena - 1 or.**
- **TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. Olioak.** TED/92/2022 Agindua, otsailaren 8koa, zeinaren bidez azpiproduktutzat jotzen diren olio errotetatik datozen oliba pats koipetsuak, oliba patsen olio gordina ateratzeko erabiltzen direnean. **2328 xedapena - 8 or.**

2022/02/16

- **BARNE MINISTERIOA. Armak.** INT/96/2022 Agindua, otsailaren 11koa, zeinaren bidez zehazten den, "F" arma-lizentziaren babespean, zein arma jotzen diren lehiaketakotzat. **2463 xedapena - 5 or.**
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. Portu zerbitzuak.** 128/2022 Errege Dekretua, otsailaren 15ekoa, ontzien hondakinak jasotzeko portuetako instalazioei buruzkoa. **2465 xedapena - 33 or.**

2022/02/18

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. Ongarriak.** APA/104/2022 Agindua, otsailaren 11koa, ongarri produktuei buruzko ekainaren 28ko 506/2013 Errege Dekretuaren I., II., III. eta IV. eranskinak aldatzen dituen. **2621 xedapena - 65 or.**
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. Portu zerbitzuak.** Akats-zuzenketa, honako errege dekretu honena: 128/2022 Errege Dekretua, otsailaren 15ekoa, ontzien hondakinak jasotzeko portuetako instalazioei buruzkoa. **2622 xedapena - 1 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2022/02/12

- **XEDAPEN OROKORRAK. LEHENDAKARITZA.** 5/2022 DEKRETUA, otsailaren 11koa, lehendakariarena, zeinaren bidez deklaratzeko baita EAEn amaitu dela COVID-19aren pandemiaren ondoriozko osasun-larrialdiko egoera, abenduaren 2ko 44/2021 Dekretuaren bidez deklaratu zena. **730 xedapena - 3 or.**
- **XEDAPEN OROKORRAK. OSASUN SAILA.** AGINDUA, 2022ko otsailaren 11koa, Osasuneko sailburuarena, lehendakariak osasun-larrialdiaren egoera amaitu dela deklaratu ondoren, COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriak buruzkoa. **731 xedapena - 5 or.**
- **BESTELAKO XEDAPENAK. SEGURTASUN SAILA.** AGINDUA, 2022ko otsailaren 11koa, Jaurilaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez xedatzen baita formalki desaktibatzea Larrialdiei Aurregiteko Bidea (Labi) Euskadiko Babes Zibilaren Plana, 2021eko abenduaren 2an aktibatu zena COVID-19aren pandemiaren beste fase bati aurre egiteko. **732 xedapena - 2 or.**

2022/02/14

- **HEZKUNTZA SAILA.** 4/2022 DEKRETUA, urtarrilaren 11koa, zeinaren bidez bitarteko elektronikoak erabiltzeko betebeharrak arautzen baita ikerketa arloko laguntzetarako eta sarietarako eskabideetan eta gainerako izapideetan. **733 xedapena - 3 or.**
- **SEGURTASUN SAILA.** EBAZPENA, 2022ko otsailaren 4koa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariarena, Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuak arautzen dituen Legearen aurreproiektua jendaurrean jartzen duena. **737 xedapena - 1 or.**
- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** EBAZPENA, 2022ko otsailaren 3koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez aparteko neurriak argitaratzen baitira Lanbideak kudeatutako edo baimendutako 2022ko prestakuntza-programazioa gauzatzeko modua egokitze COVID-19ak eragindako egungo osasun-krisiaren ondoriozko egoeretara. **738 xedapena - 9 or.**

2022/02/15

- **SEGURTASUN SAILA.** 19/2022 DEKRETUA, otsailaren 8koa, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onesten duen dekretua. **758 xedapena - 64 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2022/02/18

- **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako foru diputatuaren 694/2021 Foru Agindua, azaroaren 15ekoa, 369 eredua onesten duena ('Balio erantsiaren gaineko zerga. Subjektu pasibo ez diren pertsonen zerbitzuak ematen dizkieten eta ondasunen urrutiko salmentak eta ondasunen barne emate jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboari aplikatu beharreko araubide berezien autolikidazioa'), eta hura aurkezteko modua eta prozedura zehazten dituen. **324 xedapena - 12 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2022/02/14

- **ERREGELAMENDUAK.** Batzordearen 2022/192 (EB) Eskuordetze Erregelamendua, 2021eko urriaren 20koa, zeinaren bidez aldatzen diren Batzordearen 1151/2014 (EB) Eskuordetze Erregelamenduan ezarritako erregulazioko arau teknikoak, kokatzeko eta zerbitzuak libreki emateko eskubidea erabiltzean jakinarazi beharreko informazioari dagokionez. **L 31/1 xedapena - 3 or.**
- **ERREGELAMENDUAK.** Batzordearen 2022/193 (EB) Betearazpen Erregelamendua, 2021eko azaroaren 17koa, zeinaren bidez aldatzen diren 926/2014 (EB) Betearazpen Erregelamenduak ezarritako exekuzio arau teknikoak. Betearazpen Erregelamendu horrek formularioen ereduak, txantiloak eta prozedurak ezartzen ditu, kokatzeko eta zerbitzuak libreki emateko eskubidea erabiltzean jakinarazi beharreko informazioari dagokionez. **L 31/4 xedapena- 17 or.**
- **ERREGELAMENDUAK.** Batzordearen 2022/195 (EB) Betearazpen Erregelamendua, zeinaren bidez aldatzen eta zuzentzen den 2020/638 (EB) Betearazpen Erregelamendua, ezaugarrien fitxari, ibilgailuen homologazio egiaztagiriei, saioen emaitza orriari eta euskarri inprimatuak adostasun egiaztagiriei dagokienez. **L 31/27 xedapena- 19 or.**

2022/02/17

- Akats-zuzenketa, honako betearazpen erabaki honena: Batzordearen 2021/914 (EB) Betearazpen Erabakia, 2021eko ekainaren 4koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/678 (EB) Erregelamenduaren arabera datu pertsonalak hirugarren herrialdeetara transferitzeko kontratu-klausula tipoei buruzkoa. (Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala, L 199, 2021eko ekainaren 7koa). **L 35/28 xedapena - 1 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2

HENAO, 26 - BILBAO